

## IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

<p><b>Titulua:</b> ERIZAINZAKO GRADUA</p> <p><b>Ikasgaia:</b> Bizi-zikloaren erizaintza I</p> <p><b>Kodea:</b> 26448</p>	<p><b>Mota:</b> Erizaintzako Zientziak</p> <p><b>Kronograma:</b> 1. lauhilekoa</p> <p><b>Hizkuntza:</b> Euskara/Gaztelania</p>
<p><b>Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua</b></p> <p>Giza ugalketaren osasuna mantentzea: familia-plangintza. Haurdunaldiaren, erditzearen, erdiberriaroaren eta edoskitzaroaren garapen normala eta osasun-arazo ohikoenak. Haurraren hazkuntza, garapena eta alterazioak nerabazarora arte. Erizaintzako zainketak ugalketa-adinean dagoen emakumeari osasuna-gaixotasuna continuumean, baita haurrari ere, jaiotzen denetik nerabazarora arte.</p>	<p><b>ECTS kredituak:</b> 6</p> <p><b>Kurtsoa:</b> 2. maila</p>
<p><b>Sartzeko baldintzak</b></p> <p>Bat ere ez</p>	

### IRAKASLEAK

### Tel.

### Helbide elektronikoa

Ikasgaiaren arduraduna	Tel.	Helbide elektronikoa
Alaitz Yoldi Mitxelena	945 218416	alaitz_yoldi002@ehu.eus
<b>Euskarazko lerroko irakasleak</b>		
Yolanda Gago Rodríguez		YOLANDA.GAGORODRIGUEZ@osakidetza.eus
Amaia Goikoetxea Bahon		AMAIA.GOIKOETXEABAHON@osakidetza.eus
Alaitz Yoldi Mitxelena	945 218416	alaitz_yoldi002@ehu.eus

## GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Bizi-zikloan zehar pertsonak jasaten dituzten aldaketa fisiologiko, psikologiko, sozial eta emozionalak azaltzea.
- G2. Pertsonari bizi-zikloaren etapetara zuzendutako erizaintzako esku-hartzeak justifikatzea.

## ZEHARKAKO GAITASUNA

- ZG. **Ahozko komunikazioa:** ideiak eta ezagutzak ahoz adieraztea azalpen argi, ordenatu eta laburbilduetan, hainbat baliabide erabiliz eta egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz.

I

## KASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1. Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko prozesuetan emakumeari gertatzen zaizkion aldaketak deskribatzen ditu, eta horietako bakoitzean egin beharreko zainketak identifikatzen ditu.
- IE2. Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko prozesuetako etiologia, fisiopatologia eta osasun-arazoen agerpenak deskribatzen ditu, eta egin beharreko zainketak identifikatzen ditu.
- IE3. Amagandiko edoskitze-prozesuaren fisiologia eta etapak azaltzen ditu, baita prozesu horretan eta emakumeak edota jaioberriak izan ditzakeen zailtasun ohikoenetan egin beharreko esku-hartzeak ere. Aurkeztutako kasuen esku-hartzeak argudiatzen ditu.
- IE4. Jaioberriaren ezaugarri anatomikoak eta fisiologikoak deskribatzen ditu, eta bizitzako lehen hilabeteen behar dituen zainketak identifikatzen ditu.
- IE5. Hazkundearen eta garapenaren etapen ezaugarriak identifikatzen ditu, jaiotzatik nerabegarora arte. Haur osasuntsuaren osasun-programa ezagutzen eta aztertzen du.
- IE6. Haurrek jaiotzen direnetik nerabegarora arte izan ditzaketen osasun-arazoen etiologia, fisiopatologia eta adierazpenak deskribatzen ditu, eta prozesu bakoitzean egin beharreko zainketak identifikatzen ditu.
- IE7. Ahoz komunikatzeko gaitasuna erakusten du.

## EDUKIAK

### I. UNITATEA - BIZI-ZIKLOA I IKASGAIAREN SARRERA

- 1.1 Irakasgaiaren aurkezpena.
- 1.2 Bizi zikloan zehar erizainak eskaintzen dituen osasun zerbitzuak.

### II. UNITATEA UGALKORTASUN ALDIA.

- 2.1 Apartu genitalaren anatomia eta fisiologiaren oroitzapena.
- 2.2 Kontrazepzioa.
- 2.3 Haurdunaldiaren prozesua
  - 2.3.1 Haurdunaldiaren terminologia, ernalketa eta fetuaren garapena.
  - 2.3.2 Haurdunaldiaren garapena.
  - 2.3.3 Zainketak haurdunaldian zehar. Amaren eta umekiaren osasuna.
  - 2.3.4 Asaldura ohikoenak haurdunaldian zehar eta zainketak: hiperemesia, hipertentsioa, diabetea, erditze goiztiar mehatxua, umetoki barneko hazkuntza atzeratua, besteak
- 2.4 Erditze prozesua
  - 2.4.1 Erditzearen fisiologia eta aldiak.
  - 2.4.2 Erizain zainketak erditzean zehar.
  - 2.4.3 Asaldura ohikoenak erditzean zehar.

## 2.5 Erditze ondoko prozesua.

2.5.1 Definizioa. Aldaketa fisiko eta psikosozialak emakumearengan eta familiarengan. Balorazioa eta zainketak.

2.5.2 Amagandiko edoskitzearen prozesua: fisiologia eta aldiak, edoskitze praktikak. Arazo ohikoenak. Balorazioa eta zainketak. Gai honetan, RNAOren “Lactancia materna” Gida Klinikoan adierazitako gomendioak hartuko dira kontutan.

2.5.3 Erditze ondoko asaldura ohikoenak.

2.5.4 Jaioberriaren ezaugarri orokorrak eta umetokitik kanpoko bizitzara burutu beharreko egokitzapena. Balorazioa eta erizain zainketak Jaioberri osasuntsuari lehendabiziko hilabetean zehar.

### Mintegia:

- *Amagandiko edoskitzea*
- *Ikasturte hasieran definitu beharreko lan bat egitea eta ahoz azaltzea*

## III. UNITATEA OSASUN-ARAZOAK JAIOBERRIENGAN. ERIZAIN ZAINKETAK.

3.1 Neonatologia zerbitzuan ingresatuta dagoen jaioberriaren zainketa orokorrak. Garapenean oinarritutako zainketak eta NIDCAP eredua (Newborn Individualized Developmental Care and Assessment Program).

3.2 Arrisku handiko jaioberria: goiztiarra, adin gestazionalarekiko pisu baxu eta altukoa, besteak. Sufrimendu fetal akutua. Erizain zainketak

3.3 Arazo kardio-respiratorioak jaioberriarengan. Kardiopatiak eta arnas-aparatuko asaldurak. Balorazioa eta zainketak.

3.4 Asaldura hematologiko eta metabolikoak Jaioberriarengan. Odol bateraezintasunak sorturiko ikterizia. Anemia. Hipogluzemia, Hipokaltzemia. Balorazioa eta zainketak

3.5 Gaixotasun infekzioso ohikoenak. Sepsis neonatala. Balorazioa eta zainketak.

3.6 Asaldura heredagarriak eta garapenarenak. Sortzetiko malformazioak eta arazo ohikoenak. Balorazioa eta zainketak.

### Mintegia:

- *Osasun-egoeraren analisisa*
- *Ikasturte hasieran definitu beharreko lan bat egitea eta ahoz azaltzea*

## IV. UNITATEA HAZKUNTZA ETA GARAPENA.

4.1. Ezaugarri orokorrak jaiotzetik nerabezarora arte aldi desberdinetan zehar.

4.2 Osasunaren jarraipena. Ume osasuntsuaren kontrola. Elikadura ume eta nerabeengan. Gai honetan, RNAOren “Prevención primaria de obesidad infantil” Gida Klinikoan adierazitako gomendioak hartuko dira kontutan.

4.3 Istripuen prebentzioa

4.4 Tratu txarrak ume eta nerabeengan

### Mintegia:

- *Osasun-egoeraren analisisa*

**V. UNITATEA** - OSASUN ASALDURAK BULARREKO HAURRARENGAN, ESKOLAURRE ETA ESKOLA-UMEENGAN ETA NERABEENGAN. ERIZAIN ZAINKETAK.

- 5.1 Zeinu eta sintoma ohikoak: sukarra, gorakoak, eztula, min abdominala, besteak.
- 5.2 Asaldura gastrointestinalak.
- 5.3 Arnas-aparatuko asaldurak.
- 5.4 Asaldura infekziosoak
- 5.5 Gernu-aparatuko asaldurak
- 5.6 Diabetea
- 5.7 Asaldura neurologikoak
- 5.8 Onkologia pediatrikoa
- 5.9 Zainketak kronizitatean
- 5.10 Zainketa aringarriak

Mintegia:

- Osasun-egoeraren analisia
- Ikasturte hasieran definitu beharreko lan bat egitea eta ahoz azaltzea

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK	IKASGELAKO PRAKTIKAK
1	Yolanda Gago Rodriguez	1	0	0
2		17	2	0
3	Amaia Goikoetxea	16	2	0
4	Alaitz Yoldi Mitxelena	6	2	2
5		17	4	6
GUZTIRA		<b>57</b>	<b>10</b>	<b>8</b>

**METODOLOGIA**

Planteatutako gaitasunak eskuratzeko, metodologia honi jarraituko zaio:

- **Klase magistralak:** irakasleak ikasleen parte-hartzea sustatuko du, jorratutako gaiei buruzko ikus-entzunezko aurkezpen eta bideoekin.
- **Mintegiak:** irakasleak zuzendutako jarduera dinamikoak, ikaskuntza esanguratsua eta parekoen arteko elkarlana sustatzen dutenak.

LAN PRESENTZIALA (75 ORDU)		
Klase magistralak	Mintegia	Ikasgelako praktikak
57	10	8

LAN EZ-PRESENTZIALA (75 ORDU)		
Talde-lana	Bakarkako lana	Ikasketa
12	8	55

GUZTIRA	
ECTS	6
ORDUAK	150

## EBALUAZIO-SISTEMAK

### OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Kalifikatzeko tresnak eta ehunekoak:

- GARATZEKO IDATZIZKO PROBA (AZTERKETA) %65
- MINTEGIAK EGITEA (KASUAK EBAZTEA, ROL PLAYING...) %20
- LANAK AHOZ AURKEZTEA %15

Ebaluazio jarraituaren sistemak eskakizun hauek bete beharko ditu:

- GARATZEKO IDATZIZKO PROBA (AZTERKETA) %65

Idatzizko proba galdera laburretan eta test galderetan oinarrituko da. Abenduan, azterketa partzial bat egingo da amatasunaren atalarekin. Proba ebaluatiboa gainditzeko 5 bat edo gehiagoko emaitza atera beharko da 10ekiko. Proba gainditzen ez bada, irakasgaien ez gainditua agertuko da eta amatasunaren atala ez-ohiko deialdian errepikatu beharko du. Baina ohiko deialdian( urtarrila) jaioberri eta pediatriaren zatiak egin ditzake.

Ohiko deialdiaren (urtarrila) azterketa 2 zati izango ditu: neonatologia (III.unitate) eta pediatria (IV. eta V. unitateak). Batez bestekoa egin ahal izateko eta azterketaren puntuazio osoa lortu ahal izateko, ikasleek 10 puntutik 4 gutxienez lortu beharko dituzte zati bakoitzean, bien arteko batazbestekoa 5 eman beharko du gainditzeko. Zatiren bat gainditzen ez bada, ikasgaia ez gainditu agertuko da, eta ikaslea ez ohiko deialdira joan beharko da bi zatirekin, jaioberria eta pediatria.

- MINTEGIAK EGITEA (KASUAK EBAZTEA, ROL PLAYING...) %20

Mintegi guztietara joatea derrigorrezkoa da (%100). Mintegia gainditzeko, nahitaezkoa da mintegien batuketan 5 bat ateratzea 10ekiko. Mintegietan egiten diren jarduerak taldean egingo dira.

Ikasleak ama-edoskitze mintegia ez badu gainditzen azterketan galdera bat gehituko zaio.

Ikasleak III., IV edo/ eta V kasua ez badu gainditzen, beste kasu bat ebatzi beharko du idatzizko proban (azterketa). Kasu hori neonatologiakoa, haur osasuntsuaren pediatriakoa edo haur gaixoaren pediatriakoa izan daiteke, eta banaka egingo da.

- LANAK AHOZ AURKEZTEA %15

Ikasleek banaka egingo dute taldean egindako lanaren ahozko aurkezpen bat.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1 eta G2	IE1, IE2, IE3, IE4, IE5, IE6	Klase magistralak	Idatzizko azterketa: galdera laburrak eta test-a	%65
G1 eta G2	IE1, IE2, IE3, IE4, IE5, IE6	Mintegiak	Kasuak ebaztea	%20
ZG	IE7	Mintegia Taldekoa	Lan bat ahoz aurkeztea	%15

Azken kalifikazioa lortzeko, ebaluazio-jarduera guztiak batu behar dira.

*\*Ikasgelako praktikak eta mintegiak gainditu badira, kalifikazioak ikasturte batean gordeko dira.*

## **EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA**

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAAn argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8.artikuluari jasotakoari jarraikiz.

Azken azterketara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du.

## **OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA**

Kalifikatzeko tresnak eta ehunekoak:

- GARATZEKO IDATZIZKO PROBA (AZTERKETA) %90
- LANAK AHOZ AURKEZTEA %10

Azken ebaluazioan, ikasleek ebaluazio-jarduera hauen bidez frogatu beharko dute zer gaitasun lortu duten:

- GARATZEKO IDATZIZKO PROBA (AZTERKETA) %90

4 zati ditu:

1. Idatzizko proba galdera laburretan eta test galderetan oinarrituko da. Azterketa idatzia gainditzeko, nahitaezkoa da 10 puntutik 5 edo gehiago ateratzea. Balioa: %70.  
Azterketak 3 zati ditu: amatasuna (I. eta II. unitateak), neonatologia (III. unitatea) eta pediatria (IV. eta V. unitateak). Batez bestekoa egin ahal izateko eta azterketaren puntuazio osoa lortu ahal izateko, ikasleek 10 puntutik 4 gutxienez lortu beharko dituzte zati bakoitzean. Zatiren bat gainditzen ez bada, ikasgaia gainditu gabe geratuko da, eta ikaslea zati guztiekin ez ohiko deialdira joan beharko da.
2. Neonatologiako, haur osasuntsuaren pediatriako edo haur gaixoaren pediatriako kasu bat ebaztea idatzizko probaren egunean edo lehenago. Banaka egingo da. Balioa: %15.
3. Amaren edoskitzearen mintegiari buruzko galdera extra bat azterketan. Balioa: %5.
  - LANAK AHOZ AURKEZTEA %10

Ahozko aurkezpena azterketaren egunean egingo da. Ikasleek banaka egingo dute lana. Gainditzeko, nahitaezkoa da 10 puntutik 5 edo gehiago ateratzea.

*\*Ikasleek aukera izango dute zeharkako gaitasun hori (ahozko aurkezpena) taldean egiteko eta ebaluazio jarraituan aukeratu duten ikasleekin aurkezteko.*

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1 eta G2	IE1, IE2, IE3, IE4, IE5, IE6	Klase magistralak Mintegiak	Idatzizko azterketa: galdera laburrak eta testa Kasuak ebaztea	% 90
ZG	IE7	Mintegia BANAKAKOA	Lan bat ahoz aurkeztea	% 10

Azken kalifikazioa lortzeko, ebaluazio-jarduera guztiak batu behar dira.

Ebaluazio-sistema honetan parte hartzeko, ikasleak ebaluazio jarraituko sistemari uko egiten diola adierazteko idazki bat aurkeztuko dio ikasgaiaren irakasle arduradunari, 2022-2023 ikasturteko ikasgaiari dagokion seihilekoaren 9. astea baino lehen.

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

*\*Ikasgelako praktikak eta mintegiak gainditu badira, kalifikazioa ikasturte batean gordeko da.*

### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA**

Ohiko deialdian zehaztutakoa ezohiko deialdian ere beteko da. Ohiko deialdian gainditu diren gaitasunen nota gordeko da.

Ezohiko deialdiaren azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

### **INFORMAZIO-ITURRIAK**

#### **Bibliografia**

- \* Aguilar Cordero MJ: *Tratado de Enfermería del Niño y Adolescente*, Elsevier, Bartzelona, 2012.
- \* Ladewig P., London M., Moberly S., Olds S.: *Enfermería Maternal y del recién nacido*, Mc Graw-Hill, Madril, 2006.
- \* Martínez Bueno C., Torrens Sigalés RM: *Enfermería de la Mujer* (1. tomoa), Ediciones DAE, Madril, 2017.
- \* Morales Gil IM., García Piñero JM: *Cuidados Intensivos pediátricos*, Ediciones DAE, Madril, 2010.
- \* Rodríguez López MA, González Fernández CT, Megías Plata D: *Enfermería del niño y adolescente* (I. eta II. tomoak), Ediciones DAE, Madril, 2021.
- \* Ruiz González M<sup>a</sup> D., Mtz. Barellas M<sup>a</sup> R., González Carrión P., *Enfermería del niño y el adolescente*, Ediciones D.A.E., Madrid 2008.

## **Praktika klinikoko gidak**

- \* Registered Nurses Association of Ontario (RNAO). Lactancia Materna - Fomento y Apoyo al Inicio, la Exclusividad y la Continuación de la Lactancia Materna para Recién Nacidos, Lactantes y Niños Pequeños. Toronto: RNAO; 2018. [Eskuragarri:  
[http://www.evidenciaencuidados.es/es/attachments/article/46/D0015\\_Lactancia\\_Materna.pdf](http://www.evidenciaencuidados.es/es/attachments/article/46/D0015_Lactancia_Materna.pdf)
- \* Registered Nurses Association of Ontario (RNAO). Prevención primaria de obesidad infantil. Toronto: RNAO; 2014.[Eskuragarri:  
[http://www.evidenciaencuidados.es/es/attachments/article/46/D0020\\_Primary\\_Prevention\\_of\\_Childhood\\_Obesity\\_2014.pdf](http://www.evidenciaencuidados.es/es/attachments/article/46/D0020_Primary_Prevention_of_Childhood_Obesity_2014.pdf)

## **OHARRAK**

UPV/EHUko Graduak Batzordeak 2018ko maiatzaren 24an hartutako Erabakiaren arabera, ikasgai hau gainditu behar da 4. mailako Practicumetan matrikulatu ahal izateko.

Ikasturtearen hasieran, ikasgaiarekin lotutako dokumentazioa jarriko da ikasleen eskura eGelan.

## **TUTORETZAK**

Ikasgaiko irakasleekin tutoretzak posta elektronikoz eskatu beharko dira. Emailak irakaskuntza gidaren hasieran izango dituzue. Tutoretzak ez dira eskolen ordezkapenak.